Aldiri, 2017, IV, **32**, 35-38, ISSN 1889-7185

ARTIKULU ZIENTIFIKOA

Euskararen Dentsitate Urbanoa (EDU)

Hizkuntzarentzat ekosistema egokiena eskaintzeko hiri-neurgailua

Laburpena: Artikuluak adierazle berri baten erabilera proposatzen du —Euskararen Dentsitate Urbano (EDU) gisa izendatu da—: hiri-hazkundeak eta haren tipologiak gure hizkuntzarengan dituzten efektuen neurgailua. Goierriko herrietan, azken 30 urteetan, indizeak izan duen bilakaera ere deskribatzen du.

Hitz-gakoak: genero-ikuspegia, hiri barneratzailea, segurtasun-pertzepzioa, diagnostiko parte-hartzailea.

Abstract: The paper suggests the use of a new index, the so called Basque's Urban Density, as a mean to measure the effects of urban growth and its typology on our language. It also describes the evolution of such an index, during the last 30 years, for the municipalities of Goierri.

Key words: Gender Perspective, Participatory Urban Diagnostic, insecurity perception, inclusive city.

Aitor Jauregi Larrañaga

Arkitektoa

Bidaltze data: 2017-09-15
Onartze data: 2017-11-19

Artikulu honen jatorrian dago, UPV/EHUk eta UEUk elkarlanean antolatutako «Lurraldea eta Hizkuntza: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa» graduondokoaren lehen edizioaren barruan, egileak garatutako amaierako proiektua. Lanaren titulua hau zen: *Bilakaera urbanistikoaren eta Euskara-indizearen arteko harremana Goierriko herrietan – Tipologia egokien bila*.

Jakina da euskararen ezagutzak izan duen bilakaera orokorra, datu ofizialei erreparatuta. Hala, badakigu azken 30 urteetan ezagutzaren goranzko joera oso nabaria izan dela udalerri erdaldunenetan. Aldiz, joera guztiz kontrakoa da herri euskaldunenetan, hots, euskarak osasun onena agertzen duenetan (*arnasguneetan*). Bereziki esanguratsua, gainera, serieko azken hamarkadan. Bilakaera horri *guraize-efektu* deitu izan zaio, modu grafikoan adierazten denean agertzen duen formagatik.

Orain artean, azterketa sakonak egin izan dira herri euskaldunenetako ezagutza-indizearen gainbeheraren kausak argitzeko. Noski, arazoa konpontzeko lehenengo pausoa izaten da beti arazoaren beraren diagnosi egoki bat egitea. Bereziki esanguratsua da, gai horretan, Gaindegiak UEMArentzat egindako lana. Bertan, galera horren kausa gisa, bi faktore nabarmentzen dira: etxebizitza-parkearen hazkundea eta biztanleriarena:

> *«Zeintzuk dira, orduan, euskararen lurgunean joera orokorra izan dena eragin duten ardatzak? Zein faktorek du hizkuntza-errealitatea maila horretan eraldatzeko gaitasuna? Korrelazio horietariko asko artikulatzeko zein izan dira faktore nagusiak? Egindako azterketak bi fenomeno jarri ditu erdi-erdian. Batetik, etxebizitza parkearen hazkundea, eta bestetik, biztanleriarena» (Gaindegia, 2016: 28).*

EAEko datu ofizialak erabili ziren lan horretan: EUSTATen biztanleria eta etxebizitzen zentsuetakoak, hain zuzen ere. Datu horiexek dira, 1981-2011 tarterako, izaera trinko berbera mantentzen dutenak; ahalbidetuz konparaketa zuzen bat. Oso erabilgarriak dira euskaldunen bilakaera denboran zehar aztertzeko. Aldiz, etxebizitza kopurua baino ez dute adierazten, dela etxebizitza nagusiena, bigarren etxebizitzena zein etxebizitza hutsena. Hots, izaera egoiliarreko eraikinen kopuru osoak alderatzen ditu, baina ez du aztarnarik ematen eraikin horien garapen-forman edo haien eraikuntzan jarraitu den hiri-hazkunde ereduaren inguruan.

Badago, hortaz, harreman zuzen bat etxebizitza kopuruaren hazkundearen eta herri euskaldunenetan gaitasun-indizea beheratzearen artean. Baina, ba ote da antzeko harremanik indize horren beheratzearen eta herri zehatz bakoitzak garatu duen hiri-hazkunde ereduaren artean? Alegia, beherakada berdin gertatzen ote da hiri-hazkunde eredu trinkoak izan dituzten herrietan eta eredu barreiatuak garatu dituztenetan?

Galderak beste modu baten formulatuta: ba ote dago hiri-hazkunde formarik (hots, hirigintza-eredurik), euskararen bilakaerarako, edo behintzat haren galera ekiditeko, *ekosistema* egokiagorik eskaintzen duenik? Galdera horren erantzunaren bila, Goierriko 22 herrietako azken 30 urteetako bilakaera urbanoak aztertu eta euskararen gaitasun-indizearen bilakaerarekin alderatu ziren graduondoko azken proiektu hartan.

Aldiri, 2017, IV, **32**, 35-38, ISSN 1889-7185



1. grafikoa ~ *EDU indizearen bilakaera Goierriko herrietan (1981-2011).*
Egilea ~ Aitor Jauregi Larrañaga.

Azterketarako metodoa

Oinarrian, Euskararen Dentsitate Urbano (EDU) izendatu zen indize bat kalkulatzean zetzan metodoa. Indize horrek adieraziko luke zein den, herri bakoitzeko eta serieko urte bakoitzeko, lurzoru urbanoko hektarea bakoitzean dagoen euskaldunen kopurua. Hainbat ohar egin daitezke indizearen egokitasunaz. Baita metodoaren aplikazioaz ere. Zailtasunak zailtasun, ordea, indizearen kalkulu sistematikoak joera garbiak adierazten ditu, eta ondorio esanguratsuak ateratzeko aukera ere eskaintzen du.

$$\text{EDU} = \frac{\text{Euskara-indizea} \quad [\text{Pertsonak}]}{\text{Azalera urbanoa} \quad [\text{Hektareak}]}$$

Lehenago aipatu denez, euskararen gaitasun-indizea kalkulatuta dago jada, hainbat lanetan, EAEko udalerri guztietarako. EUSTATen biztanleria-zentsuetan oinarritua denez, edonork izan ditzake eskura, gainera. Datuok 5 urterik behin jasotzen ditu EUSTATek, 1981az geroztik[1]. Gogora ekarri baino ez, gaitasun-indizeak gehitzen dituela udalerri bakoitzeko euskaldunak eta ia-euskaldunen erdiak. Datu horrexek bereizten ditu, UEMAren definizioaren arabera, herri euskaldunak: indizeak populazioaren % 70 baino gehiago adierazten badu, herri euskaldun bat dela esan genezake.

Azalera urbanoaren kalkuluak, aldiz, bestelako lanak eragiten ditu. Izan ere, udaletako hiri-plangintzetako datuak berriki baino ez dira argitaratzen. Gainera, indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako azalerak ageri dira, bereizi gabe garatuak izan diren jada lur horiek ala ez. Gainera, lurzoru urbanoaren legezko definizioa baino gehiago nahi zen izaera urbanoa duten lurzoruak kalkulatu, nolabait ageriko duena komunitatearen bizimodu publikoak gertatzeko aukera duen espazioa zein den. Horrexegatik utzi dira kalkulutik kanpo, adibidez, jarduera ekonomikoetara espresuki bideraturiko lurzoru urbanoak. Aldiz, sistema orokorrak zein tokikoak barne sartu dira, betiere lurzoru urbanoaren barruan baldin badaude. Berdin egin da ekipamenduekin ere.

Datuen faltan, Eusko Jaurlaritzaren GeoEuskadi web tresna erabili zen urtez urteko azalera urbanoa kalkulatzeko. Bertako bisoreak aukera eskaintzen du neurketak egin ahal izateko, katalogoan dauden ortoargazkien gainean[2]. Hala, nahikoa da euskararen gaitasun-indizea ezagun zaigun urte bereko ortoargazkia hartu eta bertan dakusagun azalera urbanoa kalkulatzea EDU kalkulatu ahal izateko.

Lortutako emaitzak

Azterlanean, herriz herriko analisia egin zen. Eta ateratako ondorio nagusia izan zen ez dagoela harreman zuzenik herrien hiri-garapenerako ereduen eta euskara-indizearen gorabeheren artean. Euskararen gaitasun-indizearen atzean hirigintza-eredu soila baino fenomeno konplexuagoak ezkutatzen dira, eta zeresan handia dute tokiko faktoreek ere (demografikoek, sozioekonomikoek, soziolinguistikoek…).

Baina orokorturiko joera bat antzeman da emaitzetan. Eta da, ia etengabe, hektarea urbano bakoitzeko aurkitu dezakegun euskaldunen kopurua behera datorrela serie osoan zehar. Oso modu nabarian etorri ere. Aldea dago, hori bai, herri nagusietan izan diren galeren eta herri txikietan izan direnen artean. Lehenengoen kasuan, galerak apalagoak dira bigarrenen multzoan baino. Baina galerak, edonon ere (salbuespen bakarra Beasain da, gorakada ageri duen herri bakarra, baina modu ia anekdotikoan).

1 Ohartu beharra dago lana egin zen garaian EUSTATek argitaratu gabe zituela 2016ko datuak, eta horrexegatik mugatu behar izan zela azterketa-garaia 1981-2011 tartera.

2 Ortoargazkien katalogoa zabala bada ere, badira gaitasun-indizea ezagutzen dugun urteetarako ortoargazkirik ez dagoen kasuak. Horietan, urterik hurbilenekoak aukeratu ziren ortoargazkien katalogotik azalera urbanoa kalkulatzeko.



2. grafikoa ~ *EDU indizearen galerak 2011n, 1981ekiko.*
Egilea ~ Aitor Jauregi Larrañaga.



3. grafikoa ~ . *EDU indizearen bilakaera modu grafikoan, Arama 1981-2011.*
Egilea ~ Aitor Jauregi Larrañaga.

Grafikoan ikus daitekeenez, Goierriko udalerri gehienetan 100 euskaldun baino gutxiago daude hektarea bakoitzeko. Horrek esan nahi du, futbol-zelai baten espazioan, gutxi gorabehera, 100 euskaldunetik behera dagoela Goierriko herri gehienetan.

Egia da duela 30 urteko gizarte-egitura (familia-eredua, etxebizitza-merkatua, egoera soziolinguistikoa, espazio beharrak etxe barruetan eta abar) zeharo aldatu zaigula. Horrek guztiak bizitegi-funtzioetara azalera gehiago eskaini behar izatera eraman gaitu. Bestalde, espazio publikoen azalera ere areagotu zaigu 1981etik hona, estandar berriak ezarri ditugulako ingurune hiritartuan nolabaiteko kalitate minimo bat bermatze aldera. Hitz bitan, barreiatu egin dugu gure bizimodua lurraldean. Baina, horrek, hizkuntza esparru fisikoan erabiltzeko aukerak murriztu dizkigu, elkarrengandik «aldendu»" egin gaituelako. Hiri-eredu barreiatuek efektu hori areagotu baino ez dute egiten.

Gauzak horrela, euskararen dentsitate urbanoari nolabaiteko ratio egokiren bat bilatzekotan, seriearen jatorrizko egoera erabil genezake pista modura: udalerri gehienek 120 eta 170 euskaldun/hektareako ageri zuten. Noski, azalera zein espazio berrien beharrak eragina du, gorago aipatzen genuen gizartearen bilakaeraren beraren eskakizunez. Baina, agian, 100 euskaldun/hektareako ezar genezake «larrialdiko maila» gisa, gurea bezalako hizkuntza gutxitu baten presentzia urbano posiblea sustatzeko asmotan bagabiltza.

Noski, hirigintzaren eskuak ere ez dira hain ahaltsuak. Alegia, hirigintza soilak ezin du Mendebaldeko gizarteen indibidualismorako joera gailendu. Baina zenbat eta atetik barruragokoa izan bizimodua, orduan eta harreman kolektiborako aukera gutxiago, eta, hortaz, hizkuntzaren egite publikorako ekosistema okerragoa.

Metodoaren baliagarritasunak

Sarri aipatu ohi den kontzeptua da *masa kritikoa*. Zenbat eta euskaldunen masa handiagoa izan herri batean (pisu espezifiko handiagoa), are eta gaitasun handiagoa izango du herriak kanpotik datozen erdaldunak ere bereganatzeko, hizkuntzaren pisu publikoa handia izaki. Herri txikienetan, normalean arnasgune direnetan, nahikoa da erdaldun gutxi batzuk iristea hizkuntzaren herriko pisu publikoan eragin nabarmena izateko. Alegia, herri txikienetan «masa kritiko» horren maila ez dela nahikoa datozen mehatxuei aurre egin eta erakusteko euskara dela bertako hizkuntza natural eta berezkoa. Masa kritiko horri buruz, ordea, beti hitz egin izan da modu abstraktuan. Denok ulertzen dugu zer den, baina inork ez daki nola neurtzen den.

Metodoaren aplikazioan zehar, batik bat emaitzei erreparatuta, ikus daiteke Euskararen Dentsitate Urbanoaren indizea «masa kritiko» delako horren neurgailu gisa erabil daitekeela. Beste kontu bat litzateke zein magnitude zehatz izan beharko lukeen EDU indize horrek masa kritiko egokiaren funtzioa betetzeko.

Artikuluan proposamen bat egin da, nahikoa intuitiboa bada ere: masa kritiko horren maila minimoak ez luke 100 euskaldun/hektareako baliotik behera egon behar. Kopuru hori Goierriko herrien azterketatik ateratako emaitzen ondorio da. Agian egokia litzateke ikerketa hau herri gehiagotara (edo guztietara, zergatik ez) zabaltzea, maila hori egokia den ala zuzendu beharrekoa den ebazteko.

Metodoaren eta EDU indizearen beste baliagarritasun bat honakoa litzateke: hirigintza-planak idazteko garaian, beti aztertzen dira alternatiba edo agertoki ezberdinak, dela ingurumenaren gaineko eragin posibleak aztertzeko, dela hiri-ereduen aukera ezberdinen aldeko eta kontrako irizpideak agertzeko. Egokia litzateke, baita ere, EDU indizearen proiekzioak egitea alternatiba edo agertoki bakoitzerako.

Aldiri, 2017, IV, **32**, 35-38, ISSN 1889-7185

Horrela, aztergai diren irizpideen artean sartuko litzateke, orobat, aukera ezberdin horiek izango luketen eragina euskararen presentzia publiko potentzialaren gainean.

Era berean, baliagarritasun hori zabal daiteke balizko Eragin Linguistikoaren Ebaluazioetara ere. Jadanik martxan diren ELE ereduen barruan beste aldagai bat sartzea litzateke kontua (hiri-garapenak gertatuko diren kasuetarako, noski). Neurgailu objektibo bat litzateke hasierako egoera neurtzeko eta plangintzaren ondorioz geratuko litzatekeenarekiko alderaketa egiteko. Horren oinarrian, argiagoa gerta daiteke hartu beharreko neurri zuzentzaileen nondik norakoa.

Noski, metodoak berak estandarizaziorako beharra ere izango luke, batik bat azalera urbanoen neurketak egiteko garaian. Hemen irizpide batzuk defendatu dira, baina beste batzuk ere egokiak izan daitezke, zehazki zer neurtu nahi den aintzat hartuta.

///

Bibliografia

EUSTAT (2017): *Etxebizitzei buruzko udal estatistika eta Hizkuntza-gaitasunaren estatistika (2017)*, [bistaratutako eguna: 2017/09/15], <http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3671_ne02.px#axzz4sjW8yG9c>.

GAINDEGIA (2016): *Gaitasun indizearen bilakaera udalerri euskaldunetan: eraldaketa faktoreak eta tipologia*, UEMA.

GEOEUSKADI Bisorea (2017): <http://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/eu/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp?lang=eu> [bistaratutako eguna: 2017/09/15].

Iurrebaso Biteri, I. (2015): *Udalerri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera (1981-2011). Hurbilpen deskriptiboa zentsuetako datuen ustiaketaren bidez*, Soziolinguistika Klusterra, Andoain.